



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

• OINARRI ESPEZIFIKOAK, ARABAKO KALKULU GUNEA AB – CENTRO DE CÁLCULO DE ÁLAVA SA FORU SOZIE TATE PUBLIKOAN PROGRAMATZAILE LANPOSTU BAT BETETZEKO LANGILE LAN-KONTRATUDUNAREN HAUTAKETA ARAUTZEN DUTENAK

(deialdiaren kodea: 2021002)

LEHENENGO OINARRIA.- LANPOSTUAREN OINARRIZKO EGINKIZUNAK:

• Informazio Sistemaren Alorrean integratuko da, proiektuaren burutzaren eta, aldi berean, alorreko arduradunaren mendekoan.

- Hainbat programazio hizkuntzatan kodea eraginkortasunez garatzea.
- Dauden programak eguneratzea eta zabalitzea.
- Programak araztea, hau da, akatsak bilatzea eta konpontzea, garatze edo mantentze lanak eta probak egin bitartean softwarea normaltasunez ibiliko dela bermatzeko.
- Aplikazioaren edo sistemaren alderdi guztiak dokumentatzea, programazioaren ikuspegitik, etorkizuneko eguneratzeetarako edo mantentze lanetarako erreferentzia gisa.
- Erabiltzen den metodologiaren arabera, erabiltzaileen beharrak aztertzen laguntzea.

BIGARREN OINARRIA.- ESKAERAK AURKEZTEA:

• Izangaiek oinarri orokorren 3.1) puntuan eskatzen diren agiriak bidali behar dituzte posta elektronikoz helbide honetara: 2021002@qualisconsultores.es.

Eskabideak aurkezteko epea 2021eko uztailaren 30ean amaituko da





Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

HIRUGARREN OINARRIA.- ESKATUTAKO TITULAZIOA:

- Informatikako edo Ingeniaritzako lizentzia, edo gradu baliokidea, unibertsitate ikasketetako “Ingeniaritza eta Arkitektura” edo “Zientziak” ezagutza adarretakoa.

LAUGARREN OINARRIA.- HAUTAKETA PROZESUAREN DISEINUA ETA PROBEN BALIOESPENA:

1. FASEA: JAKINTZA ESPEZIFIKOAREN EBALUAZIOA:

Nahitaezkoa eta baztertzaileria izango da (GAI – EZ GAI).

- Teknologia: Java/JavaScript, Angular programazioa
- Metodologia: SCRUM edo bizkor motako beste batzuk.

Zinpeko adierazpen bidez egiaztatzea goian adierazitako jakintza espezifikoak dituela.

Alegatutako merezimendu guztiak eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean eduki beharko dira, eta lan kontratua formalizatzen den unera arte mantendu beharko dira.

2. FASEA: MEREZIMENDUEN BALORAZIOA (geh. 30 puntu):

A) Titulazioak eta ezagutza (geh. 10 puntu):

A.1) Bete beharreko eginkizunekin lotura duten titulazioak (geh. 8 puntu):

- Lizentzia Informatikan edo Ingeniaritzan, edo gradu baliokidea: 8 puntu
- Beste lizentzia, ingeniari edo gradu batzuk, informatikarekin lotutako espezialitateetakoak: 4 puntu
- Gainerako lizentziak, ingeniari edo graduak: 0 puntu

A.2) Ezagutza (geh. 2 puntu):

- Open layers. 0,75 puntu
- HTML5, CSS, Bootstrap, Android/IOS gailu mugikorretarako garapena. 1,25 puntu

B.1) Hizkuntza: Euskara (geh. 2 puntu):



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

- Titulu ofizialaren bidez egiaztatu beharko da.
- Ez da egingo hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko azterketarik.
- Honela balioetsiko da:
 - B1: **0,5 puntu.**
 - B2: **Puntu 1.**
 - C1: **1,5 puntu.**
 - C2: **2 puntu.**
- Titulu ofizial bi edo gehiago izanez gero, maila gorenekoa bakarrik balioetsiko da.

B.2) Hizkuntza: Ingelesa (geh. 2 puntu):

- Titulu ofizialaren bidez egiaztatu beharko da.
- Ez da egingo hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko azterketarik.
- Honela balioetsiko da:
 - B1: **0,5 puntu.**
 - B2: **Puntu 1.**
 - C1: **1,5 puntu.**
 - C2: **2 puntu.**
- Titulu ofizial bi edo gehiago izanez gero, maila gorenekoa bakarrik balioetsiko da.

C) Esperientzia (geh. 16 puntu):

- CV, curriculum memoria eta lan bizitzaren txosten eguneratua.

Bi urte baino gehiagoko esperientzia antzeko postuetan, azken lau urteetan.	- Oso ondo betetzen du: 16 puntu. - Nahiko ondo betetzen du: 12,5 puntu. - Ondo betetzen du: 8 puntu. - Ez du ondo betetzen eta hobetu beharreko alorren bat dauka: 4,5 puntu. - Ez du ondo betetzen eta hobetu beharreko nahiko alor dauzka: 0 puntu.
---	---

Alegatutako merezimendu guztiak eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean eduki beharko dira, eta lan kontratua formalizatzen den unera arte mantendu beharko dira.

3. FASEA: LANPOSTUAREN PROFILERA EGOKITZEAREN INGURUKO PROBA PSIKOMETRIKOA



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

- **Nahitaezkoa** eta **baztertzailer** izango da (**GAI – EZ GAI**).
- 1. eta 2. faseetako emaitza orokorrean 4 puntuazio onenak lortu dituzten izangaiei egingo zaie proba.
- Izangaiek proba bat edo proba batzuk egin beharko dituzte lanpostuarekiko eta gauzatu beharreko eginkizunekiko egokitasuna balioesteko xedez.
- Qualis Consultores de Talento SLk txosten osatu bat igorriko du 4. faserako proposatutako izangai bakoitzaren inguruan.
- Gaitzat jotzen diren izangaiek aurrez aurreko elkarrizketa egin beharko dute AKGSAn, hautaketa prozesu honetarako eratu den hautaketa epaimahaiko kideen aurrean.
- Inor EZGAI gertatzekotan, probak egingo zaizkie hurrengo puntuazio onenak dituzten pertsoneri, eta hurrengo fasera (4.era) pasatuko dira gaitzat jo eta lau puntuazio onenak dituztenak.

4. FASEA: ELKARRIZKETA PERTSONALA (geh. 20 puntu)

- **Nahitaezkoa.**
- Elkarrizketa pertsonala egingo zaie 3. fasean gaitzat jo diren eta 1. eta 2. faseetako emaitza orokorrean puntuaziorik onenak lortu dituzten 4 pertsoneri.
- Aipatutako elkarrizketa hautaketako epaimahaikideek egingo dute AKGSaren egoitza sozilean, eta ardatz izango ditu lanpostuko trebetasun orokorrak eta zeharkakoak.
- Elkarrizketa horretan honako gaitasun hauek balioetsiko dira:
 - Taldean lan egiteko gaitasuna
 - Presiopean lan egiteko gaitasuna
 - Komunikazio gaitasuna
 - Autonomia eta iniziatiba
 - Inplikazioa lanarekin
- Fase honetako puntuazioa izango da eskala honen arabera aztertutako gaitasunetako bakoitzean lortutako puntuazioen batura:
 - Gaitasunik ez: 0 puntu
 - Hobetu beharreko alorrak ditu argi eta garbi: Puntu 1
 - Gaitasuna garatzeko fasean: 2 puntu
 - Gaitasun maila aurreratua: 3 puntu
 - Gaitasun maila bikaina: 4 puntu





Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

- Elkarrizketa pertsonala amaitutakoan, akta jaso eta izenpetuko da, eta bertan, hautaketako epaimahaikide guztiek emandako puntuazioak agertuko dira.

FASE BAKOITZEKO PUNTUAZIOEN LABURPENA:

1. FASEA	2. FASEA	3. FASEA	4. FASEA	GUZTIRA
E/A	30	E/A	20	50





Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

**• OINARRIESPEZIFIKOAK ARABAKO KALKULU GUNEA AB –
CENTRO DE CÁLCULO DE ÁLAVA SA FORU SOZINETATE
PUBLIKOAN ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARI (AOT)
(PROFIL JURIDIKOA) LANPOSTU BAT BETETZEKO LANGILE
LAN-KONTRATUDUNAREN HAUTAKETA ARAUTZEN DUTENAK**

(deialdiaren kodea: 2021001)

LEHENENGO OINARRIA.- LANPOSTUAREN OINARRIZKO EGINKIZUNAK:

• Administrazio eta Giza Baliabideetako Sistemaren Alorrean integratuko da, alorreko koordinatzailearen eta, aldi berean, alorreko arduradunaren mendekoan.

- Kontratazio publikoko espedienteak izapidetzea, plataformetan argitaratzen diren etik adjudikatu eta kontratua formalizatzen deneraino.
- Eskaintzak jasotzea, horiek irekitzea, aktak jasotzea eta prozesuaren dokumentazio guztia kudeatzea.
- Prozesuan parte hartzeko eskatutako dokumentazio guztia egiaztatzea eta adjudikatzea (eskriturak, ahalordeak, sailkapena, abalak eta abar).
- Kontrataziorako finantzaketa egokia kontrolatzea, baita espedientearen fakturazioa garatzea ere.
- Nominak egiteko beharrezko dokumentazioa prestatzea.
- Dietak eta bidaiak gastuak.
- Kontratazioa, Gizarte Segurantzako altak eta bajak.
- Aseguru sozialak sortzea, berrikustea eta likidatzea.
- Nominak egitea, kalkulatzea eta ordaintzea.
- Hautaketa prozesuak izapidetzen laguntzea.

BIGARREN OINARRIA.- ESKAERAK AURKEZTEA:

Izangaiek oinarri orokorren 3.1) puntuan eskatzen diren agiriak bidali behar dituzte posta elektronikoz helbide honetara: 2021@qualisconsultores.es.

Eskabideak aurkezteko epea 2021eko uztailaren 30ean amaituko da.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

HIRUGARREN OINARRIA.- ESKATUTAKO TITULAZIOA:

- Lizentzia Zuzenbidean, edo gradu baliokidea.
- Lizentzia Informatikan edo Ingeniaritzan, edo gradu baliokidea.
- Lizentzia Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan, edo gradu baliokidea.

LAUGARREN OINARRIA.- HAUTAKETA PROZESUAREN DISEINUA ETA PROBEN BALIOESPENA:

1. FASEA: JAKINTZA ESPEZIFIKOAREN EBALUAZIOA:

Nahitaezkoa eta baztertzaila izango da **(GAI – EZ GAI)**.

- Kontratazio publikoa:
 - 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora:
 - Xedea eta aplikazio esparrua. Kontratu motak. Administrazio kontratuak eta kontratu pribatuak. Egintza banagarriak. Sektore publikoko kontratazioaren xedapen orokorrak. Kontratazioa kudeatzeko antolakuntza administratiboa. Kontratazioa tokiko erakundeetan.
 - Subjektuak. Xedea. Litzitazioaren oinarritzko aurrekontua eta balio zenbatetsia. Prezioa. Prezioen berrikuspena. Bermeak.
 - Kontratuak prestatzea: kontratazio espedienteak eta klausula administratiboen eta preskripzio teknikoen agiriak. Kontratuak adjudikatzea: arau orokorrak eta adjudikazio irizpideak. Kontratuak adjudikatzeko prozedurak
 - Kontratuen eragina, egikaritzea eta aldaketa. Administrazioaren eskumenak. Kontratuak egikaritzea. Kontratuak aldatzea. Kontratuak iraungitzea. Kontratuak lagatzea eta azpikontratazioa.
 - Hornidura kontratua: hornidura kontratu jakin batzuen erregulazioa. Egikaritzea. Betetzea. Suntsiarazpena.
 - Zerbitzu kontratua: Xedapen orokorrak. Egikaritzea. Suntsiarazpena. Akatsak konpontzea, kalte ordainak eta erantzukizunak obren proiektuak egiteko kontratuan. Kontratu mistoak.





Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

- Administrazio prozedura: printzipio informatzaileak. Administrazio prozeduraren faseak: hastapena, antolaketa, instrukzioa eta amaiera. Prozeduraren denbora dimentsioa.
- “Euskadiko Kontratazio Publikoaren plataformaren” aplikazio informatikoak, edo baliokideak.
- **• Pertsonen kudeaketa:**
 - Langileen Estatutuaren Testu Bategina. Eskubideak eta betebeharrak. Lan kontratua: edukia, iraupena, etetea eta azkentzea. Langileak kontratatzeko erak.
 - Lan kontratudun langileak: araubide juridikoa, lan kontratuen modalitateak eta lan kontratua iraungitzea. Lan kontratudun langileen eskubideak, betebeharrak eta erantzukizunak.
 - Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren RED sistema. SILTRA softwarea: kotizazioa, afiliazioa, GSINeko datuak eta ordaindutako ordainsari kontzeptuak. Zerga Agentziaren informazio adierazpenen ataria.
 - Nomina: definizioa, kontzeptuak eta egiteko prozedura.
 - Nominen aplikazio informatikoak.

Zinpeko adierazpenez egiaztatzea gutxienez bi blokeetako bateko ezagutza espezifikoak (kontratazio publikoa eta/edo pertsonen kudeaketa), goian adierazitakoak.

Alegatutako merezimendu guztiak eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean eduki beharko dira, eta lan kontratua formalizatzen den unera arte mantendu beharko dira.

2. FASEA: MEREZIMENDUEN BALORAZIOA (geh. 30 puntu):

A) Bete beharreko eginkizunekin lotura duten titulazioak (8 puntu gehienez):

- Lizentzia Zuzenbidean, edo gradu baliokidea: 5 puntu.
- Giza Baliabideetako masterra, gutxienez 60 ECTS kreditukoa: 2 puntu
- Kontratazio Publikoko masterra, gutxienez 60 ECTS kreditukoa: 2 puntu.
- Unibertsitateko aditua edo unibertsitateetako berezko tituluak, Giza Baliabideetakoak, gutxienez 15 ECTS kreditutakoak: Puntu 1.
- Unibertsitateko aditua edo unibertsitateetako berezko tituluak, Kontratazio Publikokoak, gutxienez 15 ECTS kreditutakoak: Puntu 1.





Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

B) Hizkuntzak (4 puntu):

B.1) Hizkuntza: Euskara (geh. 2 puntu):

- Titulu ofizialaren bidez egiaztatu beharko da.
- Ez da egingo hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko azterketarik.
- Honela balioetsiko da:
 - B1: **0,5 puntu.**
 - B2: **Puntu 1.**
 - C1: **1,5 puntu.**
 - C2: **2 puntu.**
- Titulu ofizial bi edo gehiago izanez gero, maila gorenekoa bakarrik balioetsiko da.

B.2) Hizkuntza: Ingelesa (geh. 2 puntu):

- Titulu ofizialaren bidez egiaztatu beharko da.
- Ez da egingo hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko azterketarik.
- Honela balioetsiko da:
 - B1: **0,5 puntu.**
 - B2: **Puntu 1.**
 - C1: **1,5 puntu.**
 - C2: **2 puntu.**
- Titulu ofizial bi edo gehiago izanez gero, maila gorenekoa bakarrik balioetsiko da.

C) Esperientzia (geh. 18 puntu):

- CV, curriculum memoria eta lan bizitzaren txosten eguneratua.

Bi urte baino gehiagoko esperientzia antzeko postuetan, hamar urteetan (kontratazio publikoko idazkaritza teknikoetan eta/edo pertsonen	<ul style="list-style-type: none">- Oso ondo betetzen du: 18 puntu.- Nahiko ondo betetzen du: 13,5 puntu.- Ondo betetzen du: 9 puntu.- Ez du ondo betetzen eta hobetu beharreko alorren bat dauka: 4,5 puntu.- Ez du ondo betetzen eta hobetu beharreko nahiko alor dauzka: 0 puntu.
---	---



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

kudeaketako departamentuetan).	
--------------------------------	--

Alegatutako merezimendu guztiak eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean eduki beharko dira, eta lan kontratua formalizatzen den unera arte mantendu beharko dira.

3. FASEA: LANPOSTUAREN PROFILERA EGOKITZEAREN INGURUKO PROBA PSIKOMETRIKOA

- **Nahitaezkoa** eta **baztertzaila** izango da **(GAI – EZ GAI)**.
- 1. eta 2. faseetako emaitza orokorrean 4 puntuazio onenak lortu dituzten izangaiei egingo zaie proba.
- Izangaiek proba bat edo proba batzuk egin beharko dituzte lanpostuarekiko eta gauzatu beharreko eginkizunekiko egokitasuna balioesteko xedez.
- Qualis Consultores de Talento SLk txosten osatu bat igorriko du 4. faserako proposatutako izangai bakoitzaren inguruan.
- Gaitzat jotzen diren izangaiek aurrez aurreko elkarrizketa egin beharko dute AKGSAn, hautaketa prozesu honetarako eratu den organo hautatzaileko kideen aurrean.
- Inor EZGAI gertatzekotan, probak egingo zaizkie hurrengo puntuazio onenak dituzten pertsonen, eta hurrengo fasera (4.era) pasatuko dira gaitzat jo eta lau puntuazio onenak dituztenak.

4. FASEA: ELKARRIZKETA PERTSONALA (geh. 20 puntu)

- **Nahitaezkoa.**
- Elkarrizketa pertsonala egingo zaie 3. fasean gaitzat jo diren eta 1. eta 2. faseetako emaitza orokorrean puntuaziorik onenak lortu dituzten 4 pertsonen.
- Aipatutako elkarrizketa organo hautatzaileko kideek egingo dute AKGSaren egoitza sozialean, eta ardatz izango ditu lanpostuko trebetasun orokorrak eta zeharkakoak.
- Elkarrizketa horretan honako gaitasun hauek balioetsiko dira:
 - Taldean lan egiteko gaitasuna
 - Presiopean lan egiteko gaitasuna
 - Komunikazio gaitasuna
 - Autonomia eta iniziatiba





Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

- Inplikazioa lanarekin

- - Fase honetako puntuazioa izango da eskala honen arabera aztertutako gaitasunetako bakoitzean lortutako puntuazioen batura:
 - Gaitasunik ez: 0 puntu
 - Hobetu beharreko alorrak ditu argi eta garbi: Puntu 1
 - Gaitasuna garatzeko fasean: 2 puntu
 - Gaitasun maila aurreratua: 3 puntu
 - Gaitasun maila bikaina: 4 puntu
 - Elkarrizketa pertsonala amaitutakoan, akta jaso eta izenpetuko da, eta bertan, hautaketako epaimahaikide guztiek emandako puntuazioak agertuko dira.

FASE BAKOITZEKO PUNTUAZIOEN LABURPENA:

1. FASEA	2. FASEA	3. FASEA	4. FASEA	GUZTIRA
E/A	30	E/A	20	50